

ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU-ERASOAK
JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZA HOBEA
EMATEKO ERAKUNDE ARTEKO AKORDIOA
ZABALTZEKO ETA ABIAN JARTZEKO NEURRIAK
(2003)

Erakunde arteko akordioaren segimendu-batzordea

Ondoren jasotzen dira inplikaturako erakundeek 2003an burutzeko asmoa duten neurriak, 2001eko urriaren 18an izenpetutako *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko akordioa* zabaltzeko eta abian jartzeko, bai eta akordioaren segimendu-batzordeak 2002ko azaroaren 22an onartutako *Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-plana (2002-2004)* ere. Akordio hau ere segimendu-batzorde horrek onartu zuen 2003ko maiatzaren 14an, eta bertan jasotzen diren neurriak akordioan parte hartzen duten erakundeen arabera banatuta daude.

1. EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

- 1.1. Aipamen eta erreferentzia esplizituak egitea emakumeen kontrako indarkeriari eta erakunde arteko akordioari, lehendakariaren jendaurreko mintzaldietan, gaia dela eta egoki denean. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 1.2. **Eusko Legebiltzarraren Deklarazio** berri bat bultzatzea, emakumeen kontrako indarkeriari buruzkoa, aurrekoaren betetze-maila aztertu ondoren. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 1.3. **Jarduera-ildoan liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 1.4. Beste erakunde batzuek akordioaren inguruan antolatzen dituzten **prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardueretan** parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, etab.). (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 1.5. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren** diseinuan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 1.6. Etxeko tratu txarreatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)

2. EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

- 2.1. Erakunde arteko **akordioa** komisaria guztietan **banatzen** jarraitzea, agente guztiek (gizonezkoek zein emakumezkoek) akordio horren berri izan dezaten. (PAPME ekintza: 9332; maila: 1)
- 2.2. Arkauteko Polizia Akademiak hainbat polizia-talderi eman dizkien **prestakuntza-ikastaroetan**, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak izaten diren kasuetan hartu beharreko neurriei buruzko edukiak eranstea, eta erreferentzia egitea akordioaren

- jarduera-protokoloan jasotzen diren eta polizia-interesekoak diren jarraibideei. (PAPME ekintza: 9331; maila: 3)
- 2.3. Udalek berek eskatuta, **prestakuntza-ikastaroak antolatzea udaltzaingoentzat**, tratu txarrak eta sexu-erasoak izaten diren kasuetan hartu beharreko neurri buruz. Ikastaro horietan akordioaren jarduera-protokoloan jasotzen diren jarraibideak aipatzea. (PAPME ekintza: 9331; maila: 3)
- 2.4. **Udalekin** izenpetzen ari diren **hitzarmenen** edukiak egokitzea, Ertzaintzaren eta udaletako gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzak ezartzeko, hitzarmenetan akordioko edukiekiko erreferentzia ezar dadin. (PAPME ekintza: 9341; 7. maila)
- 2.5. Ertzaintzaren komisarietan biktimei **salaketaren kopia ematea**; horrela, ez dute zertan errepikatu behar deklarazioa erakunde bakoitzaren aurrean. (PAPME ekintza: 9345; maila: 6)
- 2.6. Ohartarazpen bat helaraztea **“Ertzaintza Gaur”** barne-informazioko egunkariari. (PAPME ekintza: 9332; maila: 1)
- 2.7. Etxeko tratu txarren biktimentzako **polizia-babeseko sistemak** aztertzea, eta behar izanez gero, ezartzea, batez ere judizialki biktimagilearen urruntzeko neurriren bat (badaezpadakoa edo behin-betikoa) hartua denean (PAPME ekintza: 1132; maila: 6).
- 2.8. **Fiskaltzarekiko aldian behingo bilerak** egiteko aukera lantzea, etxeko tratu txarren arloko jardueren segimendua egiteko. (PAPME ekintza: 9353; 7. maila)
- 2.9. Etxeko indarkeriako egoera larrienen **segimenduko prozedura informatikoa** sortzea (PAPME ekintza: 9314; maila: 7).
- 2.10. Jardue
ra-**ildoen liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 2.11. Beste
erakunde batzuek akordioaren inguruan antolatzen dituzten **prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardueretan** parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, etab.). (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 2.12. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren** diseinuan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 2.13. Etxeko tratu txarregatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)

3. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

- 3.1. Akordioa **Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluan** eta **Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan** aurkeztea, ezagut dezan eta bere eragin-eremuan horren berri eman dezan. (PAPME ekintza: 9332; maila: 1)
- 3.2. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen arazoari buruzko **esku-hartze programak edo ekimenak** lehenestea, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak kudeatzen dituen laguntzen dekretuaren barruan. (PAPME ekintza: 9128; maila: 6)
- 3.3. Arlo horretako **prestakuntza-ikastaroetarako laguntza** lehenestea, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak kudeatzen dituen laguntzen dekretuaren barruan. (PAPME ekintza: 9331; maila: 3)
- 3.4. Etxeko tratu txarrak edo sexu-erasoak jasaten dituztenentzako **babasetxeen** funtzionamendu-irizpideak **gidatzeko arauak** osatzea. (PAPME ekintza: 9355; maila: 5)
- 3.5. Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimentzako **larrialdiko telefono-zerbitzu bat** ezartzea EAE osorako (24 orduko estaldura izango du), segimenduko eta informazioko zerbitzu bati lotuta. (PAPME ekintza: 9112; maila: 2)
- 3.6. Hiru **etxebizitza** toki-administrazioen eskueran jartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimentzako berehalako **babasetxe gisa kudeatzeko**. (PAPME ekintza: 9356; maila: 5)
- 3.7. Jarduera-ildoen **liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 3.8. Beste erakunde batzuek akordioaren inguruan antolatzen dituzten **prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardueretan** parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, etab.). (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 3.9. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren** diseinuan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 3.10. Etxeko tratu txarreatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 3.11. Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko **jarduera-gida** baten lanketan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. Gida hori **gizarte-zerbitzuetako langileentzat** izango da. (Ekintza: 9332; maila: 1).
- 3.12. Etxeko tratu txarren biktimentzako **abegiko eta etxebizitzako baliabideak berrantolatzeko** proposamen batean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9353; maila: 7)
- 3.13. Gizarte-zerbitzuen arloko **datu-bilketako sistema bateratu** baten sorreran parte hartzea (PAPME ekintza: 9313; maila: 7).

4. EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

- 4.1. Sailaren barruan **lan-talde** bat sortzea, akordioaren abian jartzea dela eta sortzen diren jarduera eta kasu guztiak berrikusteko ohiko bidea izan dadin. Lan-talde horretan, delituen biktimei laguntzeko zerbitzueta (BLZ), orientazio juridikoko zerbitzueta (OJZ) eta gainerako zerbitzu lagungarri ez-judizialeko ordezkariak parte hartuko dute. Talde hori Ertzaintzarekin eta gainerako poliziekin koordinatuko da, bai eta akordioaren segimendu-batzordearekin eta akordioa babesteko erakunde arteko talde teknikoarekin ere. (PAPME ekintza: 9353; maila: 7)
- 4.2. Delituaren biktimei laguntzeko zerbitzuei buruzko **triptikoak eta** bestelako **dibulgazio-materiala** prestatzea, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen kasuei laguntzeko zeregina duen zerbitzu hori indartzeko asmoz. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 4.3. **Lege-laguntzako berariazko** txanda **Gipuzkoan** ere abian jartzea (zerbitzu hori jardunean dago Bizkaian eta Araban). (PAPME ekintza: 1132; maila: 6)
- 4.4. **Biktimei laguntzeko zerbitzueta** aurrekontu-partidak gehitzea (PAPME ekintza: 9351; maila: 5).
- 4.5. Giza eskubideen arloko **laguntzen deialdietarako** aurrekontu-partidak gehitzea. Erakunde onuradunen artean etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen eremuan lan egiten duten batzuk sartzen dira. (PAPME ekintza: 9128; maila: 6)
- 4.6. Bi **ikastaro berariazko** antolatzea, bata nahitaezkoa eta bestea aukerakoa, **“epaiketa azkarrak”** direlakoetan sakontzeko, justizia-administrazioako langileak prestatzeko eta epaiketa horiek behar bezala abian jartzea errazteko asmoz (PAPME ekintza: 9331; maila: 2).
- 4.7. Abenduaren 30eko 319/2002 Dekretuan ezartzen diren **kontrataziorako eta autoenplegurako laguntzak**. Dekretu horretan, besteak beste, etxeko indarkeriaren biktimak ere talde onuradunen artean sartzen dira. (PAPME ekintza: 5351; maila: 6)
- 4.8. Jarduera-**ildoen liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 4.9. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren** diseinuan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 4.10. Etxeko
tratu txarreatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)

5. EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

- 5.1. Sare publikoko eta pribatuko osasun-zentro guztien artean **banatzen** jarraitzea *etxeko tratu txarren aurkako osasun-protokoloa*, bai eta historia klinikoaren eredia eta historia kliniko hori epaitegira bidaltzeko gutuna ere. Osakidetza/EOSko eta beste erakunde eta organismo batzuetako osasunzainei ere bidali zaizkie dokumentu horiek. (PAPME ekintza: 9332; maila: 1)
- 5.2. Etxeko tratu txarren aurkako **osasun-protokoloa** aurkez dezaten proposatzea oraindik beren kabuz aurkeztu ez duten lehen mailako aretako eskualdeei eta ospitaleei (PAPME ekintza: 9332; maila: 1).
- 5.3. Protokolo horren banaketari eta protokoloaren betetze-mailari eta -kalitateari buruz 2002an egindako **ebaluazioekin jarraitzea**. (PAPME ekintza: 9312; maila: 4)
- 5.4. Jarduera-**ildoen liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako, bai eta erakunde arteko talde teknikoan eta segimendu-batzordean (liburuxkak, gida,...) osasunzaintzat eta, oro har, pazienteentzat onartutako gainerako materialaren banatzean parte hartzea ere. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 5.5. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren** diseinuan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 5.6. Etxeko tratu txarreatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)

6. EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

- 6.1. Segimendu-batzordearen eta erakunde arteko talde teknikoaren lana **bultzatzen eta koordinatzen** jarraitzea. (PAPME ekintza: 9353; maila: 7)
- 6.2. **“Emakumeen aurkako Indarkeria” txostena** eguneratzea, erakunde arteko akordioaren esparruan burututako jardueri eta segimendu-batzordearen eta erakunde arteko talde teknikoaren lanari dagokienez. (PAPME ekintza: 9332; maila: 1)
- 6.3. Aldian behin, **Emakunderen web-orriko** “Emakumeen kontrako Indarkeria” atala eguneratzea eta elikatzea, erakunde arteko akordioaren esparruan burututako jardueri buruzko eta segimendu-batzordearen eta erakunde arteko talde teknikoaren lanari buruzko informazio eguneratua eskaintzeko asmoz. (PAPME ekintza: 9332; maila: 1)

- 6.4. Jarduera-ildoen **liburuxka** bat egitea koordinatzea eta zabaltzea finantzatzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 6.5. Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko **jarduera-gida** baten lanketa koordinatzea eta finantzaketan parte hartzea. Gida hori **gizarte-zerbitzuetako langileentzat** izango da. (PAPME ekintza: 9332; maila: 1)
- 6.6. **Profesionalak** etxeko tratu txarrei eta sexu erasoei buruz **prestatzeko materialak** lantzea, esku-hartzearen eremu guztien arabera: osasuna, polizia, justizia, abokatutza eta gizarte-zerbitzuak. (PAPME ekintza: 9331; maila: 3)
- 6.7. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko esku-hartze diziplina anitzeko masterren bat edo bestelako **unibertsitate-prestakuntza**ren bat sortzea eta finantzatzea bultzatzea. (PAPME ekintza: 9331; maila: 3)
- 6.8. Erakunde publikoei eta pribatuei **aholkularitza tekniko**a eskaintzea, akordioaren inguruko prestakuntzako eta sentsibilizazioko jarduerak antola ditzaten. (PAPME ekintza: II B.4; maila: 2)
- 6.9. Beste erakunde batzuek akordioaren inguruan antolatzen dituzten **prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardueretan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 6.10. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpaina** koordinatzea eta finantzaketan parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 6.11. Etxeko tratu txarreatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloa** koordinatzea eta bertan parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 6.12. **Erakundearen diru-laguntzen dekretuetan**, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko jarduerak egitea lehenesten duten balioespen-irizpideak sartzeko, bai eta biktimei laguntzeko irizpideak ere. (PAPME ekintza: 9128; maila: 6)
- 6.13. Emakumeenganako **Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarearen proiektu** bat diseinatzea. (PAPME ekintza: 9335; maila: 3)
- 6.14. Egoeraren diagnostiko-azterlan bat eta **biktimei laguntzeko gizarte-sare** bat abian jartzea (gizarte-bitartekariak). (PAPME ekintza: 9128; maila: 6)
- 6.15. Etxeko tratu txarren biktimeizako **abegiko eta etxebizitzako baliabideak berrantolatzeko** proposamen bat koordinatzea eta bertan parte hartzea. (PAPME ekintza: 9353; maila: 7)
- 6.16. Gizarte-zerbitzuen arloko **datu-bilketarako sistema bateratu** baten sorrera koordinatzea eta bertan parte hartzea. (PAPME ekintza: 9313; maila: 7)
- 6.17. Egoeraren diagnostiko-azterlan bat egitea eta etxeko tratu txarren biktimeizako **gizarteratzeko eta lan-munduratzeko proiektu** bat abian jartzea. (PAPME ekintza: 5351; maila: 6)

7. ARABAKO FORU ALDUNDIA

- 7.1. **Lurralde mailako mahai** bat abian jartzea, Arabako Lurralde Historikoan jarduera-protokoloaren garapenaren segimendua egiteko. (PAPME ekintza: 9312; maila: 4)
- 7.2. **Generoko indarkeriaren arreta integralera, prebentziora eta ezabapenera zuzendutako esperientziei buruzko bilketa eta informazioa** txostena berrargitaratzea eta zabaltzea (PAPME ekintza 9335; maila:3).
- 7.3. Generoko indarkeriaren arretarako eta prebentziorako **babesetxe integral** bat sortzeko proiektua garatzea. (PAPME ekintza: 9356; maila: 5)
- 7.4. Arreta psikologikoko eta orientazio juridikoko **zerbitzuak** mantentzea eta **garatzea**, bai eta babesetxeak ere, etxe horietarako hezkuntza- eta laguntza-programa barne dela. (PAPME ekintza: 9351; maila: 5)
- 7.5. Jarduera-**ildoen liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 7.6. Beste erakunde batzuek akordioaren inguruan antolatzen dituzten **prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardueretan** parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, etab.). (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 7.7. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren** diseinuan eta, behar izanez gero, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 7.8. Etxeko tratu txarreatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 7.9. Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko **jarduera-gida** baten lanketan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. Gida hori **gizarte-zerbitzuetako langileentzat** izango da. (Ekintza: 9332; maila: 1).
- 7.10. Etxeko tratu txarren biktimetako **abegiko eta etxebizitzako baliabideak berrantolatzeko** proposamen batean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9353; maila: 7)
- 7.11. Gizarte-zerbitzuen arloko **datu-bilketako sistema bateratu** baten sorreran parte hartzea (PAPME ekintza: 9313; maila: 7).

8. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- 8.1. Bizkaiko Foru Aldundiak 2002ko ekitaldian erakunde arteko akordioaren jarduera-protokoloan jasotzeko esku-hartze ildoak ezagutarazteko argitaratutako **triptikoa berrargitaratzea eta zabaltzea**. (PAPME ekintza: 9332; maila: 1)
- 8.2. **Familien elkarguneko zerbitzua** koordinatzea, kudeatzea eta zabaltzea. (PAPME ekintza: 9359; maila: 5)
- 8.3. Emakume-taldeentzako **diru-laguntzen deialdia** arautzen duen foru-dekretuan, babes eta laguntza juridikoko jardueren zuzeneko eskaintzarekin lotutako **balioespen-irizpideak** lehenestea. (PAPME ekintza: 9128; maila: 6)
- 8.4. Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei eta beren seme-alabei zuzendutako **babeseko baliabide berri** bat abian jartzea. Baliabide horrek laguntzako eta babeseko langileak izango ditu eguneko 24 orduetan. (PAPME ekintza: 9354; maila: 5)
- 8.5. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako **arreta psikologikoko zerbitzuaren** eskaintzaren asteko orduak handitzea. (PAPME ekintza: 9351; maila: 5)
- 8.6. Jarduera-ildoen **liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 8.7. Beste erakunde batzuek akordioaren inguruan antolatzen dituzten **prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardueretan** parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, etab.). (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 8.8. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren** diseinuan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 8.9. Etxeko tratu txarreatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 8.10. Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko **jarduera-gida** baten lanketan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. Gida hori **gizarte-zerbitzuetako langileentzat** izango da. (Ekintza: 9332; maila: 1).
- 8.11. Etxeko tratu txarren biktimentzako **abegiko eta etxebizitzako baliabideak berrantolatzeko** proposamen batean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9353; maila: 7)
- 8.12. Gizarte-zerbitzuen arloko **datu-bilketako sistema bateratu** baten sorreran parte hartzea (PAPME ekintza: 9313; maila: 7).

9. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- 9.1. Gizarte-larrialdiko egoeran dauden pertsonen zuzendutako lurralde-mailako **larrialdietako babeseko zerbitzu** bat sortzea. Zerbitzu horretatik erantzun

- profesional bat emango zaie (informazioa, laguntza eta orientazioa) etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei. (PAPME ekintza: 9356; maila: 5)
- 9.2. **Elkarguneen** baliabidea mantentzea, langile espezializatuekin. (PAPME ekintza: 9359; maila: 5)
- 9.3. **Laguntza juridikoko zerbitzua handitzea** (sistema judizialak eskaintzen duenaren osagarria) aldez aurreko neurrien eskaerari dagokionez. Neurri horiek hartu behar izaten dira adingabekoak Espainiatik atereak izateko arriskua dagoen kasuetan (beren gurasoetako batek ateratzen ditu). (PAPME ekintza: 9351; maila: 5)
- 9.4. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko jarduerak burutzen dituzten eta indarkeriaren biktimei Gizaide planaren bidez laguntzen dieten elkarteei zuzendutako **laguntza ekonomikoak** kasuan kasuko diru-laguntzen bidez **gehitzea**. (PAPME ekintza: 9128; maila: 6)
- 9.5. Tratu txaren segimenduko **lurralde-batzorde**an parte hartzea, datu-bilketako fitxak egiteko irizpideak bateratzeko eta datu homogeneoak lortzeko, bai eta proposamenak egiteko ere. (PAPME ekintza: 9313; maila: 7)
- 9.6. **Erakunde arteko lan-taldean** parte hartzea (udalerriak, aldundia, epaileak, osasuna, psikologoek elkargoak, abokatuen elkargoak), orain dauden esku-hartze tresnak erakunde arteko akordioaren jardura-protokolora egokitzeko. (PAPME ekintza: 9341; maila: 7)
- 9.7. Biktimei laguntzeko zerbitzuen eta delitu horien biktimentzako berariazko arreta-zerbitzuen arteko **oraingo koordinazio-jarduerak** sistematizatzea. (PAPME ekintza: 9346; maila: 7)
- 9.8. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko **prestakuntza**-jarduerak egitea, kasu horien arretan eta tratamenduan esku hartzen duten **profesionalei** zuzenduak. (PAPME ekintza: 9331; maila: 3)
- 9.9. Etxeko tratu txarren biktimentzako babes, laguntza eta segimenduko lanak egiteko **gizarte-bitartekarien sare** bat eratzeko **prestakuntza**-jarduerak egitea. (PAPME ekintza: 9331; maila: 3)
- 9.10. Gizaide planaren barruan burutzen diren indarkeriaren prebentziora zuzendutako sentsibilizazioko eta prestakuntzako ekintzak ebaluatzea. (PAPME ekintza: 9312; maila: 4)
- 9.11. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen **biktimei laguntzeko baliabide** guztiak **ebaluatzea**: orientazio juridikoko zerbitzuak, arreta psikologikoa, babesetxeak eta larrialdietako zerbitzua. (PAPME ekintza: 9312; maila: 4)

- 9.12. **SOS/Deiak** zerbitzuaren oraingo egoeraren **segimendua** egitea, gizarte-zerbitzuen ohiko ordutegiaz kanpo egiten diren osatu- eta arreta-eskaera premiazkoei emandako erantzunari buruz. (PAPME ekintza: 9312; maila: 4)
- 9.13. Emakumeak eta adingabekoak nola eskuratzen dituzten **gizarte-babeseko sistema** guztiak **aztertzea**: oinarritzko errenta, lan-munduratzeko programak, gizarte-integrazioko programak, ... (PAPME ekintza: 9312; maila: 4)
- 9.14. Kasua
n kasuko udalerriak **babes ofizialeko etxebizitzak** promozioen eskaintzari buruz **informatzea**. (PAPME ekintza: 9358; maila: 6)
- 9.15. Jardue
ra-ildoen **liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 9.16. Beste
erakunde batzuek akordioaren inguruan antolatzen dituzten **prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardueretan** parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, etab.). (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 9.17. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren** diseinuan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 9.18. Etxeko tratu txarreatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 9.19. Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko **jarduera-gida** baten lanketan, finantzaketan eta zabalkundean parte hartzea. Gida hori **gizarte-zerbitzuetako langileentzat** izango da. (Ekintza: 9332; maila: 1).
- 9.20. Etxeko tratu txarren biktimetako **abegiko eta etxebizitzako baliabideak berrantolatzeko** proposamen batean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9353; maila: 7)
- 9.21. Gizarte-zerbitzuen arloko **datu-bilketako sistema bateratu** baten sorreran parte hartzea (PAPME ekintza: 9313; maila: 7).

10. EUDEL / EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

- 10.1 Erakunde arteko akordioa Eudelen **web-orriaren** bidez zabaltzen jarraitzea. (PAPME ekintza: 9332; maila: 1)
- 10.2 Akordioaren aplikazioa zuzenean inplikaturako **udal-langileen prestakuntza-guneak** proposatzen jarraitzea. (PAPME ekintza: 9332; maila: 1)

10.3 Erakunde arteko akordioaren eta segurtasun-planaren zabalkundeari eta abian jartzeari begira planteatzen diren **erakunde arteko neurrietan** laguntzea. (PAPME ekintza eta maila, lankidetzat-motaren arabera zehazteko)

11. FISKALTZA

11.1. KPko 153. artikuluko tipo penalagatikiko prozedura penaletan onartutako **badaezpadako neurrien zerrenda** bat, hamabostean behin, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari bidaltzea, bai eta epai penal irmoetan zigor erantsi gisa emandakoak ere, behar bezala kontrolatzeko eta betetzeko. (PAPME ekintza: 9353; maila: 7)

11.2. Etxeko indarkeriaren fiskalen bitartez, **Ertzaintzaren** lurralde-buruzagitzekin **aldian behin bilerak** egitea, Ertzaintzaren lana errazteko asmoz, segurtasun-planeko 2.1 neurriaren inguruan. (PAPME ekintza: 9353; maila: 7)

11.3. Jardue ra-**ildoen liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)

11.4. Beste erakunde batzuek akordioaren inguruan antolatzen dituzten **prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardueretan** parte hartzen saiatzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, etab.). (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)

12. LEGEKARIEN EUSKAL KONTSEILUA

12.1. Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen arloan, abokatuentzako **prestakuntza-ikastaroak** antolatzea. Parte hartzea ezinbesteko baldintza izango da, bai berariazko ofiziozko txandan izena emateko, bia bertan irauteko ere. (PAPME ekintza: 9331; maila: 3)

- 12.2. Foru-aldundiekiko eta udalekiko **koordinazio-ildoak** egituratzea, bai eta Eusko Jaurlaritzarekin –batez ere, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin eta, zehazki, Giza Eskubideen eta Justiziariekiko Lankidetzarako Zuzendaritzarekin– irekitako lankidetzaleroan jarraitzea (PAPME Ekintza: 9353; maila: 7)
- 12.3. Elkargo bakoitzaren 24 orduko **guardia-zerbitzuari publizitatea eta zabalkundea** emateko behar diren neurriak jartzea, bai eta berriki sortu den berariazko **ofiziozko txandari** ere. (PAPME ekintza: 9343; maila: 1)
- 12.4. Abokatutzako profesionalen eta justizia-administrazioarekin lotutako beste profesional batzuen **prestakuntzarako materialak** lantzen saiatzea, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen arloan, bai Kontseiluaren beraren ardurapean, bai elkargo bakoitzaren ardurapean, edota beste erakunde eta/edo instituzio batzuen laguntzaz, material horiek prestatzeko. (PAPME ekintza: 9331; maila: 3)
- 12.5. Arlo honetako **prestakuntza-ikastaroak** antolatzen saiatzea, epaileekin, fiskaltzarekin eta justizia-administrazioari langileekin. (PAPME ekintza: 9331; maila: 3)
- 12.6. Jardueraren **ildoen liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 12.7. Beste erakunde batzuek akordioaren inguruan antolatzen dituzten **prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardueretan** parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, etab.). (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 12.8. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren** diseinuan eta zabalkundean parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 12.9. Etxeko tratu txarreatatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)

13. EUSKADIKO SENDAGILE ELKARTE NAGUSIA

- 13.1. Jardueraren **ildoen liburuxka** bat egitean eta zabaltzean parte hartzea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 13.2. Beste erakunde batzuek akordioaren inguruan antolatzen dituzten **prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardueretan** parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, etab.). (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)
- 13.3. **Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren** diseinuan parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko akordioa zabaltzeko eta abian jartzeko neurriak. Erakunde arteko talde teknikoa.

- 13.4. Etxeko tratu txarreatatik heriotza-kasuei buruzko **erakunde-erantzunaren protokoloan** parte hartzea. (PAPME ekintza: 9321; maila: 1)

Vitoria-Gasteiz, 2003ko maiatzaren 14a